

ZER
ALDIZKARIA

395n. zenbakia
2013 GARAGARRILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Kepa Uriarte



**Ipuin sariketa:
Euskera eta belarrondokoa**



Izadia zaindu VI.

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, VII.

Gabon

Urtearen egunik etxekoiena, osasunez eldu gara biziari eusteko zoria izan dogunok.

Bizkarrean dogun zama, erdiarindu dogu, etxeari, senide, gau ontan oiturazko izaten dan orio-aza, ilinti bizi ta beste milla gau zai buruan leku berezi bat emonaz. Kristau andiagoeziñak dogu jaun, jabe, nagusi; Kristo-k irakatsitako maitasun eta lagun urko arenganako begiramenik emen ezta agiri. Poza ta garrantzizko pozgiroa aurkitu daikegunak, geu gara. Alkar maitatuz eta alkarri lagunduz, itxaropena kolkoratu daikegunak geu gara, besterik iñor ez. Onantxe, ba, garratza ta gozoa nasturik jan da edanez, eta ixil-mixilka. Aberri ta Belen-go Aurtxoari abestuz emonez gauaren aintzin orduak, loaren eta ametsen besoe-tan etzun gintzazan.

Gauaren lekua egun barriak beretzako egin dau, Kristaudentzat egun alaya. Gaur-egun eta emen be, egunaren giroa Jauna artuz pozturik. Bitarteka iru eskutitz egin dodaz, eta irurak izilbideetatik marroka, kanporako bidean jarri. Gudaritza Zaragoza-n (Zaldua-n) egiten dagon Bingen Urkixo-renzat bat izan zan.

30rez izpar pozgariak kanpotik barruruntz, bidea dagi, eta diñoskue, Karmelo-tik 25 errikide etxerako bidean urten zirala.

Illabetean 31gna, Illaren azken-eguna

Arratsaldez, urteari bukaera ona emoteko, autortza izan dogu

Askatasun piti bat geiago dogu, olan damoskue-ta, eta edanontzirik ezean azpillak alkarri joarazoz eta klin egiñik, maite danen onerako ta geure osasu-



narako zurrut egiñaz, ortz et agin-lanean asi gara: dantza, abesti ta bertsoz gaua emonez.

1938gn urtea

Ama ta amari laguntzera zetorkidanakaz ikustal-ditxo motz-laburra izan dot. Antonio Sautua adis-kide miña, gudari atxilotuekaz España-ko lurra- zear egola bultzian, ezbearrez il zala. Zoritxarra.

Illak 5 Ateak gogorki loturik doguz, aintzin egune-tan lez. Jagolek, alde batetik eta bestetik, izkilluak bizkarrean dindiliz, entzumen zorrotz eta begi lu-zeegaz zainzen gaituez, ez baiña zulo ta makurkeri guztiak. Mari Urkixo-ren eskutitza zulorik zulo eta aterik ate datorkik, bere ta errikoen barria emonaz nireak eskatzera. Beste aspetxe batean izan ziran.

7gn eguna. Putz dagi aize gaiztoak, ortzian odei-tontorrek agiri dira, arpegiak mazkal doguz, be-giak lurrera adi. Zerbait danok dakigu, iñor bere ez, arazo garbirik.

Igitaya etxe-inguruan dabilkigu, lepoa nori moztu aukeratzen. Ibilian dabil odol epelaren egarriz, be-reak eta bost egin barik, ezta aldenduko.

Oraingo ontan zenbat etz nortzuk izango garan eztakigu. Ni bere, bai? kozka ta untzea or doguz.

Gauaren illun motela gizentzen doa-eta, motelagoak dirudie gelako argiak. Itxuratu ta tajutu dira izan doguzan zurrumuruak, eta biurtuko eztiraren ogetakarentzat zabal iriki dira atea.

Auzoko ateetan doguz otsoak, txokor sendoak kentan daukez, txapelgorriak agiri dira, nortzuek eta zenbat diran, osteraz ez. Atearen irrikietatik begira datzat, eta biotzaren taupadak bularra astintzen dauste, belaun-buruetan indarra galtzera doakit eta, geiago ezin iraurik, etzun-bearrean naz.

Goiz artako turutak jagi-jagi dirauskue, gaua egunaren argi motelak jan dau, artega eta armindurik doguz geure buruak, nor izan dan jakin-miñaz.

Eztarri legortuak salda antzerako baltzez busti eta betiko lekuetara goaz zein ikusiko, eta nor ez ikusteko. Egun onak eta agur gartsuak alkarri agertuz gero, anei aldiz egiten doguzan itaunak doguz jardunari asiera emoteko: Nortzuk izan ete dozak? Gitxi ala asko? Zuen gelakorik iñoz?

Adiskide maiterik eneban galdu, urtarill ontan 31 lagun eguntxintan begiak betirako itxirik, lur gorraren ganera, eta betiraun guztirako, blantz! eginekoak izan ziran.

18. Guda-ilketari igesian, Ingalaterra-n izan diran iru anai-arreba txikien ikustaldia izan dot. Itxaso arantz-onantz zedarritu dabe, guda-aginkaden min da oñaze gitxi dakie. Pozez kuin-kuindu naz. Nire poza baiño, osoa ezta, atzerritarren buztarri lotuak eta eziak izango dira-ta.

19. Egunaren goiza, argiz dizdiratsuago dator, soiñak josteatzea nai dau, eta ibillera bera bere txairoagoa dogu.

Gartzen dana, zer da, ba?

Makiña bat ametsen iturburua, bor-bor ura emoten asi da, trukeraro eguna dirudi. 37 giltzapekoentzat jayotza barria. Onen poz zoroa nor neurtu!

Artea-ko Maximo Espinosa (Errero) arteko da. Prantzira joyan.

Askatasun eguzkiaren ñir-ñirrak, eriotza itsuturik, goizetik gaua ta gabetik goizera, aize askatasuna lagun izan dabe. Ondo izan bitez!!!

Ilbeltza (Otsailla)

Illa onen lenengo egunetan amaren, izekoen, Maria Zuazo, Martzelina ta Gergori, maitearen iker-taldia izan dot. J. Maria Iruarizaga-k, Kotxor-ek,





nire osaba Elias, Zubiko Tomas eta Torre-ko Jose Mari-ri, iñon dan astiñaldirik emon dautsiela-ta, indarrak non gorde eztakialarik ei-dabil.

Agate Deuna

Bakoitza bere lekuetara batu aurretik, adizkideak doguzan ateetan ixil-ixilka Agate goraltzen dogu.

6gn eguna. Barruan bazkaldu dogu, barruan jarra-tzen dogu, eta aizea artzeko deiaren zai-gengoza-larik, “Agur Jaunak”, abestu dogu.

Onetan gengoza-larik, otsoa lako gizontzar bat da-torkigu zezenaren putzez anditurik, zeintzuk abes-lari izan diran jakin-miñez. Eta erantzunik jaso ezean, gelako buru dan Anton Zarrabeitia-ri eskua esarririk, nora edo nora daroa ostikoz eta ikubilka, belarriak eratsi baiñik.

Gero batean Anton ba-datorkigu bizkarra baltz eta matrallak gorriturik, irri-parra galdu barik. Egun

artatik geroz, ixil-egonbearrez gintzazan.

Illak 15 Patxi Sautua-ren ikertaldia dot. Fazisten menpe dago-ta, basoetan da mendietan diardu gu-daritzta egiten.

-Kaixo, Patxi; Barri onik, edo-ta txarrik, zer dogu?

-Ez larritu, adiskide, garaille jagiko gara-ta.

Berba alai ta pozgarriak belarrientzat, geienak izaten ziran biotzean izaten genduan astuntasuna arintzeko.

Jagole barriak etorri jakuz. Orain arte izan doguzan-gogorak eta ankerrak izan ba-dira, oraingoek gogoragoak eta ankerragoak dirudie. Gaitzize-nez “Mitxelin” ezagutzen asiak gara, ziur askorik gaitzoena. Soiña soñekoa estaldu dau, eta soiñen doaren barririk eztakigu, aurpegia baiña zornez ondaturik, gizonaren itxura galdurik, lizunkeriarenezaugarria dauka, usteldua dirudi.

(Jarraituko da)



EUSKERA ETA BELARRONDOKOA

Don Migel izenekoa, genuen eskolan, maisua. Niretzat gaur Migel ankerra. Ikus dezagun zergatik: Aspaldiko kontua da. Ia laurogei urte. Umetxoan nintzen, sei urte. Eskolan nengoen. Gerra madarikatuak eztanda egin zuen urtea! Eta orrek sortu zuen giroa, giro txarra, euskera eta euskaldunontzat, jasaten ari ginen.

Aspalditik entzuna degu eraztunarena, neskatilla eta mutiko euskaldunentzat, zigorra. Euskeraz itz egiten zuenari eskolan, eraztuna jartzen zioten eta bukaeran, aren jabe gertatzen zena, zigortua izaten zen.

Nire uste apalez, izan zen beste erabateko zigorra ere, gorrotoz beteriko belarrondokoa. Nik orrela antz eman nion. Niri gertatu zitzaidanagatik.

Esan bezala, umetxo nintzelarik, eskolan nengoen. Eta alako batean, maisuak orrelako zerbait esana izango zuen, gutxi gora beera: ; Silencio!; No se muevan.....!

Gaur bertan balitz bezala gogo-gogoan daukat. Eutsi eziñik, irripar txiki bat atera zitzaidan burua makurtuta maai kideari begiratzen niolarik, ondo ezpañak estututa.

Burua jaso nuenean. Maisuak begiz jota ninduen...
"A ver vengo Ud. aquí"

Atze xamarrean nengoen, eta gela guzia atzetik aurrera pasata, denon aurrean jarri. Eta auxe entzuna izango nuen gutxi-gora beera: "No les he dicho a Udes que..." Eta alako batean, zarpa aundi bat sumatu nuen, goitik beera zetorrela nire buru gainera, egazti baten antzera. Eta izugarritzko belarrondokoa artu nuen. Eta gero txistu otsa gelditu zitzaidan belarri barruan. Eta..... gaur arte.

Gaur egun otorrino sendagile baten iritzian, nire txistu otsari buruzkoa galde egin nionean, ori kolpe baten ondorioz, nuela esan zidan. Eta bereala, nik ori aipatutako belarrondokoarekin lotu nuen.

Ori zergatik izan ote? Beste batzuek ere ainbeste

egiña bait zuten. Gaiñera geldik eta isillik nengoen. Gogoetak onetara narama:

Orduan eskoletan, militar antzera jarri, eskolara sartzerakoan, eta "Cara al Sol" kanta arazten ziguten garaia zen.

Egun batez, auxe esan zigun Don Migel delakoak:

- "Teneis que preguntar a vuestros padres si quereis ser , flechas o pelayos, para que se os dé el uniforme". Ez zegoen beste aukerarik, zirudienez.

Etxera joan eta, aitari esan nionean:

- "Bada seme: Ez flecha eta ez pelayo"

- Eta beartzen bagaituzte?

- Izango dek bestelako eskolaren bat, eta atera egingo aiz ortik.

Eta Migel ankerrari, ez nion erantzunik eman.

Eta azkenean, ez gintuzten beartu.

Antz ematen nion ordea, Migel ankerrari, euskaldunak ez gintuela maite, eta bear bada ortik etorri zen nire irripartxoaren pekatua. Euskera soillik ikasi nuen etxean, gurasoak menderatzen zuten bakarra. Eta ni antxe eskolan, erdera ikasten nuelarik, biak naasten nituen. Eta begiz jota ninduen Migel ankerrak, itxurak zirenez.

Garai anker aietako une txarrak ere, gure etxean igaroak genituen. Garbi ikusiko degu, aitaren joera eta amorrazioa, nik delako "fletxak eta pelayoak" aipatu nionean. Bera frankistak il zorian jarri bait zuten. Frankistek baituta egukia zuten. Naiz eta sekulan politikan sartu gabekoa izan.

Langil apal bat besterik ez zen. Umetan morroi, bere jaiotetxeko auzoko baserria batean. An umerik ez, ere bere etxean, Txirritak bertsoan dioena "Nagusia eta maizterrarenean": "Maaiean ezin kabitu". Gero baserriko lanetatik, itsasora joan zen. Eta ezkondu eta, ama legorrekua izanik, itsasoa utzi eta fabrika. Oriek ziren egin zituen "delituak". Bada alarik ere, ozta ozta atera zen bizirik, frankista baitzaille aiengandik. Gerra asi berri artan, lagun talde bat, afaltzera bildu ziren



beren txoko edo soziedadean. Zeregin oraindik, nazionalak sartu zirenean. Alde egin ala gelditu. Beldurraren beldurrez, jende pilla alde egiten asia zegoen frankisteen urbilletik urrun. Aal zuten lekutara.

Eta zalantza orietan, afaltzen ari zirelarik, norbaitek deia egin omen zuen: "Aquí abajo hay una reunión de rojos separatistas" euskadun peto-petoak zirelako. Andik pixka batera, kamioi zaar batekin, talde bat pistola eta guzti, azaldu zirenak, antxe eraman zituzten, abereak bezala, kamioi zaarrean artuta. Aurretik izugarritzko mozkorra arrapu omen zuten...

Ama, urrengo egunean, espetxean aurkeztu zen, eta an senarra, gure aita, barruan zeukatenik, ukatu egin zioten. Beste zoko batzuetan ere galdezka ibilli zen. Eta berdin. "Aquí no está su marido señora"

Eta denbora gutxiren barruan, urrengo pausua, or-maren aurrerakoa izan zezaketen.

Eta gure amaren larriak... Nolakoak izan ote ziren! Ni umetxo izanik, ez nintzen konturatzen gertaera orren arazo larriaz, bere osotasunean.

Eta nola bizirik atera ote ziren? Bada, ala bear eta, lagunetako baten koñatua militarra izan... Eta orren amazteari esker, militarrekin itz egin da, orrelaxe berpiztu zitzaigun aita berriro etxean. Galdutzak ematen bait genuen... Eta kontuan izan,



gure Iriburuak guda asi zeneko artan 85.000 inguru biztanle zituela. Eta 34.000 besterik ez zirela gelditu, frankistek sartu zirenean. Eta orietatik 400 inguru afusilatua izan ziren, bertan. Gertatutakoa oso gogoan daukat. Gezurrezko salaketak zirela eta, nola afusilatua izan ziren gure auzoko batzuk. Sekulan politikan sartu gabeak. Euskaldun jatorrak, eta berezko abertzaletasun bat izan.

Jaioterria eta bere nortasuna maite, aldi berean. Gurasoenganako maitasunaren ondorioz, sorterriarekiko sortzen den maitasuna. Eta ori frankistek ikusi ezin.

Eta Migel ankerraren belarrondokoa, nik esan bear banu, eraztunaren antzekoa izan nuen. Niri, etxean ikasitako euskera ateratzen bait zitzaidan, barne-barnetik. Ni jaiotzen garaiean, baserritik kaleratutako gurasoak euskera besterik ez bait zuten menderatzen. Eta noski, ondo baiño obeto ikasi nuen gure mintzaera.

Bukatzeko, guraso zaar aien gorantz eta esker onez. Auxe diot bertsoan. Ez dira gaurkoak. Aspaldi xamar, amaren jaioterrian, famili arteko billera genuelarik, bota nituen.

Aipatzea nai nuke
mendiko euskera,
baserritarra zuzan
bait dut nik joera.
Guztiz ona da beti
zure itz joskera,
erdal kutsurik gabe
baita mintzaera,
zu bai, bene-benetan,
Euskalduna zera.

Baserriko bizitza
beneragarria,
ona batzutan eta
bestetan larria.
Aldatzen ari zaigu
gure sorterria,
gerora sortuko da
mundu bat berria,
ez nuke ikusi nai
illik baserria.

Zu iltzen zeranean
mendiko aitona,
berdin esango dizut,
bertsoan amona.
Zuek zeruan eta
emen iragana,
Euskal Erria ez ote
aultzen dijoana?
au da buruaustea!
auxe geure lana!

"Arbizuko"

Murua'tar Joseba
Mirena



Kepa Uriarte

Jauna! Zein gogorra da lagun bategandik aldentzea!. Eta zer esan laguna baño geiago bada. Bizitzaren legea izan arren, zeñek onartu? Unea eltzen danean, aurretiaz orrela izan bear dala jakin arren samiña ez da txikiagoa. Eta zer esan bidea erakutsi eta bidean lagun izan dozun bat bada?. Itzi eidazue, mesedez, berari zuzenean berba egiten.

Bueno Kepa: ainbat aldiz esan dogu eziña ekiñaren bidez lortzen dala, baño oraingoan ekiña ez da naikoa izan eta gaisotasunak irabazi dau. Mirestekoa zara txo! Bizi izan zaran moduan jakin izan dozu, sinesten dogun beste alde orretarara pasatzen: garrasi barik eta atea zarata barik zarratuta.

Zuri buruz zeozertxo idazteko esan deust Iñakik, bai Euskarazaleakoak, eta ainbat gauza burara batera etortzen jatazanez, ia-ia ez dakit nondik asi ere. Baina Euskerazaleak aipatu dodanaz, eurengandik asiko naz ez badeutsu ardura. Askok eta askok Bizkaia Irratitik ezagutuko zaitue, baño euskerareganako zaletasuna ez da lanean sorturikoa. Lenago bere euskerea indartzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko alegiñak egindakoa zara. Zure oroimenez idatzitakoak irakurtzerakoan, niri bere oroimen batzuk biztu deustiez. Esate batera “Jardines” kaleko bulegoa eta antxe batzen zirenak. Josu Astondoak jaso ebazan ziriak, Martiartugaz batera zapatu goizetakoak, ... Orduan AGUREn denporak ziran.

Azkenean euskerea lanbide biurtu bajatzun bere, sakonean, erraietan eroan izan dozun zera izan da. Inoiz erderaz berbetan ikusi zaitudanean, zu zeu izan ete zaran zalantzak euki dodaz. Erratuta banago esaidazu, baño alde orretatik zoriontsua izan zarala uste dot, zaletasuna, lana eta elburua batera bizi izan dozuz. Irratia bidea baño ez dozula izan uste dot: euskera indartzeko eta lagunak egiteko.

Eta Alderdia? Au bere bidea baño ez: askatasunaren bidea. Eta orrela izan dan einan EAJaren alderako langile nekebagea zan zara. Ortxe be lagunak eta euskera ez



dira falta izan. Arritzekoa izan da alderdikeriak gertatu izan diranean, lagunak izan dozuzala batean zein bestean Eta ori zurikeriaz, aldi baterako, edo zintzotasunez, betirako, baño ez da lortzen. Argi dago zintzotasuna dala zure beste ezaugarri bat.

Badira gauza batzuk sekula ez dozuzanak ukatu ezta izkutatu bere: euskerea, euskal kultura, Euzkadi, EAJ eta sinismena. Bizitzaren ardatz izan dozuz. Nabarmentzekoa euskal kulturaren aldeko lana bere. Zapatuko agurrean bion ezagun battegaz aurkitu nintzan. A bere agur esatera etorri jatzun, beste askoren moduan. Larri Sodupekoa. Deitu zeuntsanekoaz gogoratzen zan, Itxas Alde dantza taldea sortzailetarikoa ziñanez, baten bat bear zala dantzan irakasteko eta berataz gogoratu ziñan. Ile batzuetarako etorri ei zan eta illeak urte biurtu ziran. Dantza taldeari izena jartzerakoan, ez zan izan erria itxas bazterrean dagoalako, guda denporako EAJren batalloi baten omenez baño. Barriro kultura, Euzkadi eta alderdia uztartzen.

Milla eredu jarri daikedaz bizitza, zeure pentsakeragaz uztartu zeundula adierazteko. Zelan pentsatu eta alan bizi. Ez dira asko aurkitzen alakoak gaur egun, baño agurrean nortzuk egon ziran konturatu baziñan orretariko ainbat ikusiko zenduzan, zeugaz batera ekiñean ibilitakoak.

Oraingoz amaitzen ei nago emon deustien lekua, eta momentuz agurtu bearra daukat. Baina azken oroipen bat bere onartuko deustie. Ajuriagerra il zanean, zeu izan ziñan Begoñako Elizatik lepoan atara ebenen bat. Oraingoan zure lagunek eroan zaitue, zeuk sentidu zenduan oore bardiñagaz baiña samin aundiagoz. Onezkero or zagozan lekuan aspaldik zure aurretik joan ziranak aurkituko zenduzan, ainbeste maita zenduzan gurasoak, orrenbeste mirestu zenduan osaba Pedro abadea eta Patxuel, Kele, Felistxu eta beste lagun asko. Goraintziak danari.

Ba, orixe, geroa arte bat, ez da au izango dogun azkeneko alkarrizketa, eta barriro bere jardungo dogulakoan nago, urrutixeago gorputzez baño urbil, oso urbil arimaz. Bitartean, ondo izan.

Enrike Itxasalde







Kepa Uriarte Bizkaia Irratiko langilea 60 urte gaz hil da, gaisotasun baten ondorioz. Euskaltzale, fededun eta abertzale sutsua zan Kepa. Horreexek ziran bere bizitzako hiru ardatzak eta hirurak be sendo bizi zituan.

Aspaldi hasi eban bere irrati ibilpidea, hogeitamar urtetik gora egin zituan irratigintzan. Lehenengo pausoak Bilbo Herri Irratian 1980an. Herri Irratiko euskerazko lehenengo emisinoetan parte hartu eban. Bertako euskerazko emisinoa egonkortu zanean Bizkaia Irratia sortu zan eta orduan emisora honetako kide eta figura garrantzitsu izatera pasau zan. Danetariko lanak egin zituan Bizkaia Irratian bere hogetapiku urteko ibilpidean, izan be edozer egiteko prest eta gogotsu egoten zan horetarikoa zalako Kepa Uriarte: albistegiak, kirol kronikak, era bateko eta besteko saioak, publizidade salmentea, kanpoko konexinoak... Irratian bertan ardura desbardinak euki zituan: publizidadeburu, zuzendariorde eta abar.

Nabarmentzekoa da baserritarren munduari begira irratian berak egindako lana eta ahalegina. Urte askotan landu eban baserri mundua Garoa izeneko tartean, irratsaioaren sorreratik. Etenik bakoa eta gogotsua zan baserri mundua ezagutzera emoteko egiten eban ahalegina, giro horretako gaiak edonori hurreratu nahian. Berarentzat garrantzitsua zan ganera baserritarrekin eurekin zuzeneko hartuemonak, ekoizleen eritziak, arazoak, preminak eta abar zuzenean batzea. Horregaitik ba makina bat azokatara joaten zan irratirako alkarrizketak eta zuzeneko konexinoak egitera. Azoketako baserritarrekin eurekin aparteko tratua eukan eta egindako osterak guztien ondorioz ondo baino hobeto ezagutzen eban Bizkaiko baserriaren eta baserritarren egoera.


Irratiko pastoral arloa be bere ardura zan. Fedea sakon bizi eban gizona izanda, ardura handiz eskaini gura izaten eban zerbitzu hori: eliz gaiei eskainitako irratsaio bereziak, Aste Santu eta Gabonaldiako mezak, ekitaldi berezi eta bestelakoak.

Mimo handiz zaintzen eban arloa zan ebanjelizazinoarena be, garrantzi handikoa Bizkaia Irratian.

Euskal doinuak zabaltzen be ahalegin berezia egin eban azken urteetan, domekero trikitixeari eskainitako “Soinu eta pandero hotsean” irratsaioan eta eguerdiosteetako “Musikea Atseginez” izenekoan. Azken hau euskal kantu tradizionalen tartea. Lehenagoko disko eta kantak berreskuratzen, digitalizetan eta zabaltzen lan ikaragarria egin eban, entzuleen aldetik erantzun bikaina jasota ganera.

Kepa Uriarte kazetaritzako todoterrenoa zan, bere lana gogotsu eta kariñoz egiten eban. Hortik ba Bizkaia Irratiko entzuleen artean beti euki dauen arrakastea.

Jabi Onaindia




IZADIA ZAINDU

EUSKAL TOKI-IZENAK

MUNDUAN ETA

EUSKAL EDESTIA VI.



8. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko.

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakuntza aundiak emon eutsuezala, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzen asi ziralako.

Orregaz batera, euren denborak be nasaitzen asi jakiezan, giza legean aurreratzeko eta bear ebezan arri landuak trebetasunean egokitzeko.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren batzarrarekin ta

izkuntzan Atlant Itsasotik Urruneko Asiaraiño, Europaren Iparraldetik Afrikaraiño, eta orduan lurra lar zabalak izan ziralako, leen Euskerazko errotik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten azkortu ziran.

Au da aurkitu dodazan zeaztasunetatik, ulertzen dodan orduko Europa, Asia ta Afrikaren auzotasunaren NORTASUNEZKO egokitasuna.

Eta gure edesti aurretik NORKERIETAN asi ta, menperatzaileak Asiatik xirriborrotzen asi zirana, gaur Bizkaiaren ur kolko inguruan ondo murriztuta geratzen dan gure EUSKALERRI maite au izan ezik.

Espainolak ta Frantzezak ezin bestean ezerez-tuteko alegiñean dabizena, Paleolitiko gizarteak oraiñarte JAINKOAREN BEREZTASUN



LEGEAN lortutako ASKATASUNEZKO DEMOKRAZIAK ezereztu gure dabelako, Mundu onen gizarteetan BEREZITASUNEZKO BAITAREN LEGERIK GABE, EUREN NORKERIAREN GAIEZKO ELBURUAK, ERREZTASUN GEIAGOREKIN GARAIPENDU EGIEZAN.

Bai ?.

Bigarren eta Euskalerriko irugarren zatietan ikusiko dogu, ori ez dala izan ditekenea.

2n. ZATIA.

1. Asia, Afrika eta Europako jendekuntzak.
2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Greziaren edesti laburra eta edesti onen ondorioz,

Ario edo ta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri aldaketaren edesti laburra.

2.1. Asiaren edesti laburra.

2.2. Ejiptoren edesti laburra.

2.3. Greziaren edesti laburra.

2.4. Nortzuk ziran Ario edo ta Indoeuropeotarrak.

2.5. Zergaitik euren erri aldak ?.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarra?.

5. Lenengo eta Bigarren zati onen ondorioa.

5.1. Giza leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki izenak.

5.2. Izkuntza ta toki izenak.

5.3. Jendekuntzazko garaiak.

5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etruskoen agerkeraren edesti laburra.

5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, gora-garrizko izen ona.

1. Asia, Afrika, eta Europako gizartearen leen jendekuntzak.

Leinuen auzotasunarena ardurazko antolamenduan ta leen euskerazko izkuntzan egokituta egoteaz gain, egu giroaren gozotasunagaitik, goian esan dogun lez, Europa baiño irumilla urtearen aurrerakuntza artu eben, bai ta nortasunezko bidetik alde eginda K.a. 4.000-3.000 urte inguruan norkerietan be asi zirala.

2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Ario eta edo Indoeuropearen edesti laburra.

Mundu onen leen jendekuntzak⁽¹⁾ egugiro onak lagunduta, Ekialde Urbil eta Ekialde Erdi inguruan sortzen dira. Indo ibai eta Nilo ibaiaren bitartean, eta apur bat estutu ezker Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean. Sumeriako erria, orain K.a.4.000-2.500 urte bitartean. Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji lanaren bitartez aurkitutako onda-rrak, ziri antzeko⁽²⁾ irudiaren⁽³⁾ idazkerea asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre lan edo eta zillar lanean, obekuntzazko edertasun aundia erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin⁽⁴⁾ ureztatu egiten ebezan, gero Babilonioak aukeratu ebena eta Sargon erregeak menperatuta ezereztuten joan ziran erri lez, ortik aurrera Babilonia sendotzen joanda azturazko jakintzan.

2.1. Asiaren edesti laburra.

Edestiko une onetan azten dira Norkeriaren bide maltzurak. Sumertarrak euren auzotasunezko lurraldeetan bakez kokatuta, aztura edo egitezko⁽⁵⁾ jakintzan jendekuntz aundia artuta, baten baten aunditasunezko irudimenari egoak ipini eutsoezan. Ala eurak izan ziran lenengotik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?.

Dana dala, Semdarren erri zarretik, K.a. 4.000 urte inguru Mesopotamiaren Ego aldean sortutakoa, K.a 2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan Akkad'eko⁽⁶⁾ kaizertzaren sortzaillea izangurean eta bereala asi zan Sumeriotarren aurka, menperatzeko alegiñean.

I Sargonek, K.a. 2.025-2.010 urte artean, Asiriatik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaizertza sendotu eban.

Gero, K.a. 722-705 urte bitartean II Sargonek, sargonidaren errege leiñua ezarri edo irasita, Samaria, Israel, Ejipto, Armenia, Kaldea eta Babiloniako errialdeak menperatzeko alegiñetan ibilita, K.a. 710ean Babiloniako errege egin zan, beren jauretxe edo gaztelua, Niniberen⁽⁷⁾ Iparraldeko mendietan eraikita.

II Sargon ostean, K.a. 705-681eko urte bitartean bere seme Senakerib izan zan errege edo kaizerra, eta 689an Babilonia ezereztu edo ondatu ondoren, Ejiptoren mugatara elduta, jauretxeak edo gaztelu batzuk eraiki ta Akkabeko urian Nesrok jainkoaren izenean egon zan eraikitako eleiza edo jauretxean, beren semeak il eben.



(1) Jendekuntzak=civilizaciones.(2) Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cuña. (3) Irudian= ideogràfica. (4) Egindako tresneriekin = artificialmente. (5) Egitezko = mètodo empírico.(6) Akkad'eko= Acadio (7) Ninibe'ren=Khorsabad.



Urrengo errege, I Kanbises K.a. 600-559 urte bitartean errege izan zan.

Gero bere seme Ziro aundiak K.a. 559-529 urte bitartean, gaur Irak dan Media erria⁽¹⁾ 553-550 (549) urteetan menperatu eban.

547-546 urte bitartean Kresori irabazi eutson, eta Lidia mendetuta, 540-539an Babilonia ta Juduak askatu ebazan, eta oneri Palestinara joaten itxi ondoren, Kaspio Itsasoren zelaietan Mesajetaren leiñuen aurka dagoela il eben.

K.a. 529-522 urte artean bere seme II Kanbisesek igon eban erregetzara, eta 525ean Ejipto mendetu ta euren XXVIIIko errege leiñua ezarri ostean, bere kaizertza Nubiaraiño zabaldua, Nilo ibaiaren ibarraz bat egin eban.

Baiña Ammon eta Etiopian porrot egin eban eta Ejiptora urten orduko, bere anai Smerdis il eban, bera gudan ibilita, erregetza kenduko eutsolakoan bildurragaitik, ta bitartean, Gautama apaiza beren anai Smerdis izenean, erregetza lapurtu eutson.

II In Kanbises, K.a. 522an Persiara lapurketak zuzentzeko itzultzen egoala, il zan.

I Dario aundia 558-486 urte bitartean bizi zanak, 522an erregetzara igon ebanetik Indiaraiño elduta, kaizertzaren zabalkundezko asmo aundiak euki ebazan eta Europa menperatzeko be alegintzen asi zan.

Europan sartzeko, Greziaren demokrazia ezereztu egin bear lenengo, ta or agertu ziran aurka, oiturazko sinismenetan eta eritzizko ulermenean, guztiz ezberdiñak ziran jendekuntz orre in darrak.

Persak: morroitasunean batzangotzeko Menperatzaille gogokoak oso osoan zirenak, eta Griegoak: Azturazko giza bidean ekanduzko mailla aundira elduta, Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenduta egon ziranak.

K.a. 499-494ko urte bitartean Dario persiatarrak Joniko erri batzuk bakeztuta, 490ean Maratonen, Greziari emon eutson leenengo eraso aldia, ta Milziadesen aginduan Greziaren gudalozteak oarturik, 9.000 Espartar gudariakaz babeserako prest egonda, Dariok eroan ebazan 20.000 gudariai irabazi eutsen.

Bere seme I Jerjesek⁽²⁾ Ejiptoko iraultza bakeztuta, 480an, Greziari emon eutson Termo-pilaseko bigarren eraso aldian garaille agertu arren, 480an bertan Temistoklesek Salamina-ko itsasoan emoneko astiñaldi ederra artuta, I Jerjesek gudalozteak bere lengusu Mardonio-ren agindutara itxi ondoren, Ekialde Txikerreko Susa errira, euren kaizar jauregira alde egin eban.

K.a. 479an Mardonio Plateako⁽³⁾ borrokan, Pausaniasek Espartarren Alkatasunezko gudaloztea bideratzen eban aurka be, galtzaille urten eban, eta Mikalan egun berean, itsas ontzidi edo guda on-

(1) Media Erria=Medos. (2) 519-465. (3) Grezia'ren antziñako uri-bat izan zana eta Tebas'eko Ego-Mendebalean kokatuta egoana.

tzidien itsas borrokan Persak ondamentuta geratu ziran.

Eta emen bitxi bat: Mardonio Jerjesen lengusua zan, eta galtzaille lez, Greziak eukiko eban urrengo satrapa edo jaurlaria il da, Griegoak bere oialpe edo oial txabolara joan ziran, eta an egon ziran diru ta urrezko altxor aundiak ikusita, euren arritasunezko itaunean: Gizon onek baiña, zertarako gura dau ainbesteko premiatasunagaz gure erriak menperatzea, ainbesteko aberastasuna eukin da ? esan eban.

I Jerjes il eban, eta bere seme II Jerjes asi zan Greziaren aurkako erasoan, baiña au be alperrik, euren artean trebetasunezko nor geiagoan asita, 424an, beren agintaritza artu ondoren aste gitxi baiño ez, il ebelako.

Greziaren Demokraziari ezker, faziztak Europa menperatzeko euki ebezan asmakuntzak, or geratu jakiezan lenengo aldiz, eta batera, Eki aldetik morroitasunezko itxuran agertu zitekezan alegin guztiak.

2.2. Ejiptoren edesti laburra.

Kamitak, Nilo ibai inguruan Suezeko lur besotik⁽¹⁾ sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ebazan, ta K.a. 4.500-4.000 urte inguru, jaurkintza legez erregetzazko giza bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.300-3.200 urteetan Menesek erregetzara igon ebanean Ejiptoren goiko ta bealdeko lurak alkartu ondoren, faraoien jendekuntzari bideak zabaldu eutsozan, auek ogeita amar errege leiñutan iraun egien.

Ejipto, Asiaren antzera, jendekuntzazko jakintzan azkera aundikoa izan zan.

Ikusi dogu, zelan Asiatik agertuta Kamitak sartu zirala bertakoak basamortura baztertuta, eta K.a. 4.241 urtean Menes erregetzara igon orduko, lortuta euki eban 365 eguneko Eguzkiaren egutegia eta irudizko idazkera.

IVn eta Vn Faraon leiñuekin trebetasunean goraldtu egin ziran ezin obe, eta ainbat txuntxurrezko⁽²⁾ etxegintz aundiak egin ebezan.

VI In Faraorien leiñutik onantza, erregeen jabetasunak berakada aundia emon ondoren, feudotza asi zan goratzen eta kaizertzaren batasuna ezereztu eban.

Erakleopoliseko printzeak agintaritzaren jabetasuna eskuratuta IX eta Xn leiñuari emon eutsen iraunkortasuna, baiña Tebaseko printze edo buruzagiak alkartuta Erakleopolisekoak bota ebezan ta K.a. 2.160-1.570 urte bitartean, Erdiko kaizertzari emon eutsen indarra XI n leiñuetatik XVII garrene-raino.

XII n leiñuak, ostera berrezkuratu eban orokorrezko agintaritza, eta Nubiaren bealdeko lurak erritu ebezan.

XIII n leiñu agintaritzan, Asiatik agertuta Iksoen sarraldia⁽³⁾ euki eban, eta oneik Niloren ibai artean⁽⁴⁾ ezarri ta Uri nagusia Abarisen kokatuta, Kamitak euren faraoi erregetzagaz aurrera egin ba eban be, XV eta XVI garrengo leiñuak Ikso'enak izan ziran.

Atutxa'tar Paul




Zornotza'n 2.013an Urtarrillaren 15ean



(1) Lur besotik = istmo. (2) Txuntxurrezko=piramides. (3) Sarraldia=invasiòn. (4) Niloren ibai artean=delta del Nilo.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



..... ✂

ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Gernikako arbola
da bedeinkatua
Euskaldunen artean
gutziz maitatua.
Eman ta zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua

Mila urte inguru da
esaten dutela
Jainkoan jar ri zuela
Gernikako arbola.
Zaude bada zutikan
orain da denbora
eroritzen bazera
arras galdu gera

Ez zera eroriko
arbola maitea
baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntia.
Laurok artuko degu
zurekin partea
pakian bizi dedin
euskaldun jendia.

Betiko bizi dedin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitezen danok
laister belauniko.
Eta biotzetikan
eskatu ezkeru
arbola biziko da
orain eta gero.

Arbola botatzia
dutena pentsatu
Euskal erri guztian
denak badakigu.
Ea bada jendia
denbora orain degu
erori gabetanik
eduki bear degu.

Beti egongo zera
udaberrikoa
lore aintzinetako
mantxa gabekoa.
Erruki zaite, bada,
biotz gurekoa
denbora galdu gabe
emanik frutua.

Arbolak erantzun du
kontuz bizitzeko
eta biotzetikan
Jaunari eskatzeko,
gerrarik nai ez degu
pakea betiko,
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.

Erregutu diogun
Jaungoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti.
Baita indarra ere
zerorren lurrari
eta bendizioa
Euskal erriari.



Gernikako arbola